

Eutsi egiten duen Greziaren alde!!

**Bere zor publikoari buruzko egiaren
Batzordearen alde!!**

**Zor publikoaren auditoretza egiteko herriek
duten eskubidearen alde!!**

Europako eta munduko herriei

Murrizketa politiken kontra dauden guztiei

*Itotzen gaituen, gure baimenarik gabe eta gure kontra sortu zen
[zorra](#) ordaintzea onartzen ez dutenei*

Manifestu hau sinatzen dugunok Greziako herriaren alde agertzen gara. 2015ko urtarrilaren 25eko hauteskunde orokorretan emandako botoei esker, Greziako herria da Europan eta iparraldeko hemisferio osoan murrizketa politikak errefusatu duten herri bakarra. Murrizketak [zorra](#) ordaintzeko egiten dira, baina zorra jauntxoek sortua izan zen, herriari galdetu gabe eta herriaren kontra alegia. Halaber, Greziako Parlamentuko presidentearen ekimenez sortutako Zor Publikoari buruzko Egiaren Batzordea oso gertaera historiko garrantzitsua dela uste dugu, Greziako herriarentzat ez ezik, Europako eta mundu osoko herriarentzat ere.

Zorra oso arazo larria da, ea Europa osoan eta munduko leku askoren gainean erortzen ari den benetako izurritea.

Munduko leku askotatik heldutako hiritar boluntariok osatutako Egiaren Batzordea sorrera beste herrialde askotan antzeko ekimenak martxan jartzeko pizgarria izango da. Lehenengoz herrialde horietan ere zorra oso arazo latza delako. Baina horrekin batera, milioika hiritarrok, arrazoi osoz, zorrari buruzko oinarrizko galderak egiten ditugulako:

► **Zer gertatu da maileguen diruarekin? Zer baldintzetan eskatu ziren mailegu horiek? Zenbat ordaindu da dagoeneko interes moduan, zer interes tasatan? Maileguan eskatutako diruaren zer parte ordaindu da dagoeneko? Herriaren onerako ez den zorra zenbatetan igo da? Nondik heldu eta nora joan dira dirutza hori? Zertarako erabili da? Zenbat desagertu da? Norentzat eta nola?**

► **Nork eskatu ditu maileguak eta noren izenean? Nork eman zituen maileguak eta zein izan zen bere parte-hartzea? Noraino dago inplikaturatua Estatu bera? Nork eta nola hartu zituen erabakiak? Zor pribatuak zirenak nola bihurtu ziren “publikoak”? Nork bultzatu zituen egitasmo ezegokiak edo ezertarako balio ez zutenak? Nork egin zituen kontratuak eta nork jaso zituen kontratu horien etekinak? Diru horiek erabiliz delituak (krimenak ez esateko) egin dira? Zergatik ez dira argitzen horren guztiaren inguruan dauden ardura zibil penal eta administratiboak?**

Galdera horiek guztiak zorrotz aztertuko ditu Greziako Parlamentuko presidentearen ekimenez sortutako Batzorde bereziak. Izan ere, hau baita Batzordearen eginkizun ofiziala: “Zor publikoaren sorrera eta neurritz kanpo handitzeari buruzko datu guztiak biltzea eta zientifikoki aztertzea, ez-legitimoa, legez kontrakoa, higuingarria, edo ez-jasangarria dena argitzeko. Azterketa horretan Memorandoen garaia izango da nagusi (2010ko maiatzetik 2015ko urtarrilera arte) baina aurreko urteak ere kontutan hartuko dira. Batzordeak herritar guztientzat argiak eta eskuragarriak izango diren informazioak argitaratuko ditu, azalpen publikoak eman, Greziako herria zein nazioarteko iritzi publikoa kontzientziatzea erraztea eta, azkenik, zorra kitatzeko argudio eta eskera zehatzak prestatzea.”

Galdera horiek mahai gainean jartzea eta erantzun argiak eta zehatzak jasotzea herritar guztion oinarrizko eskubidea dela uste dugu. Erantzunak ez ematea demokrazia bera ukatzea litzateke. Gainera jauntxoei gardentasuna ez aplikatzea litzateke, beraiek

izan baitira “zorraren sistema” asmatu dutenak, aberatsak gero eta aberatsagoak eta txiroak gero eta txiroagoak izan daitezten. Are gehiago esango dugu: gizartearen etorkizunari buruz erabakitzeke eskubidea ukatzen badute, jauntxoek burujabe izateke gizateriaren etorkizunaren jabe izateke eskubidea ere kentzen diote herritarren gehiengoari.

Horregatik, larrialdi egoera honetan, premiazko deialdia egiten diegu herritar guztiei, gizarte mugimenduei, feministen eta ekologisten sare eta mugimenduei, langileen sindikatuei eta gero eta demokrazia gutxiago eta gizakien kontrakoa den Europa neoliberal honekin bat egiten ez duten indar politikoi:

Eutsi egiten duen Greziarekiko elkartasuna adierazi, eta aktiboki babestu Greziako Zor Publikoari buruzko Egiaren Batzordea bera, eta ez-legitimoa, legez kontrakoa, higuingarria edo ez-jasangarria den zorra identifikatzeko egiten ari den lana.

Batzordea defendatu eraso nazkagarriak jasaten ari baita zorraren sistema bizirauteko interes berezia dutenen eskutik, hala Grezian bertan nola mundu osoan.

Europako beste leku askotan (eta Europatik kanpo ere) egiten ari diren zorraren auditoretza herritarren aldeko prozesuetan parte hartu.

Partekatu eta zabaldu laguntza eta elkartasun deialdiak eta adierazpenak, ezinbestekoak baitira Grezia ito nahi duten munduko jauntxoek plana bertan behera uzteko. Eutsi egiten duen Greziaren etsaiak eta gureak berberak direlako: murrizketak eta zorra.

Etsaiak ez dira nolana hikoak, eskarmentu handikoak dira, denok batera jokatzeko dute, ondo koordinatuta eta botere izugarria daukate. Gainera, gure bila datoz, gure gizartearen gehiengoaren kontrako erasoak azken muturreraino eramane nahi dute. Gauzak horrela, denok batera borrokatu behar dugu, bakoitzak bere txokoan isolatuta ezin izango dugu ezer lortu.

Elkar gaitezen, eutsi egiten duen Greziaren aldeko elkartasun mugimendu zabala sortzeko, Greziako Zor Publikoari buruzko Egiaren Batzordea babesteko eta beste leku askotan ere antzeko batzordeak bultzatzeko.

Greziako herriaren borroka gure borroka da, eta bere garaipena gurea ere izango da, indartsuak izateko elkarrekin jardun behar baitugu.

Deialdiarekin bat egiteko, klikatu hemen GreekDebtTruthCommission.org